

Bake Konferentziaren

azkeneko dokumentua



Aurkibidea



Aurkezpena

- Dokumentu honen helburua.
- Bake Konferentziaren kronologia.
- Hurbileko eta nazioarteko testuinguru politikoa.
- Prozesuaren egitura bere lehendabiziko diseinutik.

Lehen zatia

Bake Konferentziaren balantzea

1. Lortu diren helburuak eta lortu ez direnak.
2. Emaitzak aukera gisa.
3. Ondorio eraikitzaileak.

Bigarren zatia

Alternatiba: Bake-bidea proposamena

1. Alternatiba bake-prozesu erabakitzaile bat da.
2. Bake-bidea proposamenaren edukiak.
3. Prozesu erabakitzailea sustatzeko ekarpenak.

Eranskinak

- Adostasun-zirriborroak (1 eta 2).
- Informazio, parte-hartze eta babes sozialaren datuak Bake Konferentzian.
- Bake Konferentziaren inguruko dokumentuen zerrenda.

gipuzkoa
Avda. Madrid, 5
20011 Donostia
tlf. 943 45 93 fax. 943 45 07 58
e-mail: gipuzkoa@elkarri.org

navarroa
Tudela, 18 - 2.G
31003 Pamplona-Iruña
tlf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88
e-mail: nafarroa@elkarri.org

bizkaia
Arenal, 5. SVRNE - 209. bulegoa
48005 Bilbao
tlf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03
e-mail: bizkaia@elkarri.org

araba
Arana, 7 - 7. bulegoa
01002 Vitoria-Gasteiz
tlf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97
e-mail: araba@elkarri.org

www.elkarri.org

Aurkezpena



Dokumentu honen helburua

Bake Konferentziaren azkeneko agiria da hau. Bertan azaltzen den guztiaren erantzukizuna Elkarriri dagokio Konferentzia Elkarririk berak antolatu duen aldetik. Bi zati ditu: lehenengoa, prozesuaren balantzea; eta bigarrena, ondorioztatzen den proiektua. Duela bi urte abiatu zen prozesu honen emaitzak, ondorioak, alternatibak eta proposamenak idatziz uztea da agiri honen xedea. Bere irakurketa osatzeko eta kokatzeko, Bake Konferentziaren kronologia, aurkitu duen testuinguru politikoaren deskribapena eta prozesuaren egitura gogoratzen ditugu.

Bake Konferentziaren kronologia

2000. urtearen amaieran hasi zen diseinatzen Bake Konferentzia eta 2001eko otsailaren 11an aurkeztu zen jendaurrean. Egun horretatik eta urria bitartean Prestakuntza Fasea burutu zen, proiektuaren ideia zabalduz, gizartearen eta izen handiko pertsonen atxikimendua bilatuz, eta alderdi politikoekin adostu beharreko metodologia prestatuz. 2001eko urriaren 7an, Bake Konferentziaren Garapen Faseari ekin zitzaion. Horrela, hamabi hilabetez gizartearen eta alderdi politikoaren arteko adostasunak bilatzen lan egin ondoren, amaiera ematen zaio 2002ko urriaren 26an Bilboko Euskalduna Jauregian.

Hurbileko eta nazioarteko testuinguru politikoa

Elkarrizketarekiko giro nahasian eta aurkakoan garatu da Bake Konferentzia. Nazioarteko giroari dagokionez, irailaren 11ko atentatuek, Afganistanen aurkako gerrak eta Palestina eta Israelen arteko gatazkak okerrera egin izanak, guztiek agerian jarri dute eredurik autoritarioenak eta militaristenak gorantz egin dutela. Honek guztiak eragin zuzena izan du Europan eta gure gatazketan. Hurbileko giroari dagokionez, bi urte hauetan ETAREN atentatuek 26 pertsonen heriotza ekarri dute. Halaber gogoratu beharko lirateke maiatzaren 13ko hauteskundearen atariko eta hauteskundeetako krispazioa, hala nola PSE-EE alderdiaren krisialdia eta honek ekarri zuen Ezohiko Batzarra, bai eta Alderdien Legea eta Batasunaren jarduerak etetea ere, edota, berriki, Lehendakariak aurkeztu duen proposamena. Hau guztia giro politiko bortitz eta tenkatuan. Hauxe da Bake Konferentziak bere bidean aurkitu duen testuingurua.

Prozesuaren egitura bere lehendabiziko diseinutik

Bake Konferentziaren garapena lau egitasmotan egituratu zen: «Hitz» bat, «Liburu» bat, «Dosier» bat eta «Orri» bat. Lehendabizikoak berdintasuna delako ideia zabaldu nahi zuen bake-prozesu baten oinarriko printzipio gisa. Bigarrenak eztabaida saio sorta bat prestatu behar zuen, bertako ekarpenak liburu batean islatuaz. Hirugarren egitasmoak herritarren parte-hartzea sustatu behar zuen, hauen ekarpenak ere argitalpen batean bilduz. «Orria» deritzon laugarren egitasmoak, Bake Konferentziaren muina izateaz gain, alderdi politikoaren artean bake-prozesu baten printzipioak eta prozedurak zehaztuko lituzkeen akordio zabala lortzea zuen helburu.

Bake Konferentziaren

Balantzea

1. Lortu diren helburuak eta lortu ez direnak

Bake Konferentziaren prozesua egituratu duten aipatu lau egitasmoetatik, hiruk –«Hitza», «Liburua» eta «Dosierra»– bete betean lortu dituzte zehazturik zituzten aurreikuspen eta helburuak, eta batek –alderdi politikoen arteko adostasunezko «Orria» delakoak– ez ditu erabat lortu.

- «Hitza». Berdintasun kontzeptua oinarrizko hiritar-printzipio gisa zabaldu da eta bere ondorioa bake-prozesu baterako duen potentzialtasunaren inguruan azken-irizpen bat argitaratzea izan da.
- «Liburua». Gogoetarako eta eztabaidarako testuinguru bat bultzatu da, 38 hizlarik parte hartu duten 12 solasaldien egitarau baten bidez, Bake Konferentziaren «Claves para hacer las paces» liburua argitaratuz.
- «Dosierra». Tresna ugari eskaini dira herritarrek parte har zezaten eta jasotako erantzunak argi-talpen batean bildu dira: «Gizartearen parte-hartzea: Dosierra».
- «Orria». Zortzi moderatzaileen eta indar politikoen arteko komunikazio-sarea sortu da eta honek bi akordio-zirriborro ekarri ditu. Bi izan dira laugarren helburu hau burutzeko egiteke geratu diren gauzak: parte hartu duten indar politikoek aipatu zirriborroak akordio batean bilakatzea lortzea eta PP eta UPN prozesura hurbiltzea.

Bake Konferentziaren balantze zehatza oso zabala da (ikus 2. eranskinaren sintesia) eta nahi duenaren eskura dago. Elkarriko web orrian ere kontsulta daiteke (www.elkarri.org). Dokumentu honetan balantzearen bertsio laburtua aurkeztuko dugu, prozesuaren emaitza azpimarragarrienak lau ataletan bilduz eta ondorio garrantzitsuenak beste lauetan.



2. Emaitzak aukera gisa

2.1. Informazio, parte-hartze eta bake kulturarako gizarte sarea

«Hitza», «Liburua» eta «Dosierra» proiektuak garatzea eta burutzea, praktikan, giza eskubi-deen, elkarrizketaren, parte-hartze sozialaren eta printzipio demokratikoen kultura etengabe hedatzea ekarri du. Jarduera handi honek 100.000 lagun inguru eta 350 erakunde jarri ditu komunikazioan eta harremanetan. Bake-prozesuaren alde mobilizatzeko eta esku hartzeko ahalmena duen informazio, parte-hartze eta bake kulturarako gizarte sare bat eratzea ahalbidetu du.

2.2. Nazioarteko sarea bake-prozesua errazteko eta babesteko

Bake Konferentziak Nobel Sarien eta nazioarteko zein Estatuko izen handiko pertsonek parte hartzea eta hauen babesak lortu du Ohorezko Batzordean, Europako Batzordean, Kataluniako Batzordean eta Madrilgo Batzordean, Liburuaren proiektuko 12 solasaldietan, AEBetan aurrera eramandako ekintzetan eta Nazioarteko Adituen Mintegian islatu den bezala. Bitartekaritzan zein bultzatzaile lanetan ahalmena duen eta euskal bake-prozesua babesteko eta errazteko prest dagoen sare bat daukagu.

2.3. Indar politikoen arteko elkarrizketarako metodologia bideragarria

Bake Konferentziak indar politikoen arteko lan eta harremanetarako metodo bat aurkitu du. Nazioarteko adituek metodo hau «gatatzak konpontzeko berria eta potentzial handikoa» dela adierazi dute. Zeharkako-elkarrizketa bat antolatu da indar politikoa komunikazioan eta eztabaidan jartzeko, euren onespenerarekin aukeratutako moderatzaile-talde baten bidez. Metodologia bideragarri eta funtzional bati buruz ari gara, batez ere adostasuna sorrarazteko gai izan dena elkarrizketaren aurkako testuinguru batean, bere aukera guztiak agortu ez dituen eta etorkizunean funtzionatzen jarrai dezakeena. Elkarrik eskerrak eman nahi dizkie moderatzaileei zein indar politikoei elkarrizketa-metodo honi eskaini dioten laguntzagatik eta egin duten ekarpenagatik.

2.4. Alderdien akordio espliziturik gabeko bat-egite politikoa

Bake Konferentziak ez du lortu alderdien akordio esplizitua. Adostasun aukera batera hurbiltzen diren bi testu-zirriborro lortu ditu (ikus 1. eranskina). Ez du lortu, beraz, bere helburu nagusia. Akordioa baino lehenagoko zerbait lortu da: indar politikoa prozesu baten, metodo baten eta bi folioen inguruan bat etortzea. Bi zirriborro hauek amaitu gabeko negoziazio baten islada dira, indarkeriaren ondorio suntsitzaileagatik eta ilegalizazioaren estrategia baztertzailagatik burutu ezin izan dena. Bi orriak, hauek laburbiltzen dituen konpromisoarekin batera, Bake Konferentzia honen ondare zehatzena izateaz gain konponbideak bilatzeko prozesu eraikitzaile baterako negoziazio- eta eztabaida-oinarri irekiak dira.



3. Ondorio eraikitzaileak

3.1. Fase erabakitzaile bati ekin eta horri eutsi

Bake Konferentzia amaitzerakoan lau aurrerapauso garrantzitsu aurki daitezke. Bake-prozesuaren aldeko gure borrokak hauxe dauka orain: gizartearen inplikazio handiagoa, nazioarteko babes gehiago, elkarrizketarako metodologia bideragarri bat eta bi zirriborroen inguruko negoziazio amaitu gabea. Elkarrik Bake Konferentziaz egiten duen balorazioa erabat positiboa da. Bakearen lorpena urratsez urrats irabazten joan behar den prozesu bat da eta Konferentziaren prozesu honek zenbait maila igotzeko aukera eman du. Bake Konferentziak heldutasun etapa bat amaitu eta aipatutako lau oinarriak jarri ditu fase erabakitzaile bati ekin eta eusten jarraitzeko.

3.2. Ahaleginak proiektu alternatibo eta integral batean bildu

Fase erabakitzaile bati ekiteko beharrezkoa da egungo egoeraren aurrean konponbiderako prozesu integral bat eskainiko duen eta proposamen ireki izaera izango duen alternatiba proiektu bat definitzea. Proiektu hau dokumentu honen bigarren zatian aurkeztuko da. Behin Bake Konferentzia amaituta, proiektu honek Konferentziaren elkarrizketa metodoak eta akordio-zirriborroen eztabaidak euren potentzialtasuna garatzea ahalbidetu behar du.

3.3. Gizartearen eta nazioarteko parte-hartzea zabaldu

Bake Konferentziak kontrako testuinguru-segida bati eta elkarrizketaren aurkako estrategia nagusiei aurre egin behar izan die. Honek azkenik lagundu egin du negoziazio-prozesu hau amaitu gabea izateko. Oztopo hauek gainditzeko eta fase erabakitzailea garatzeko beharrezkoa da alternatiba garbi eta ekintza eta mobilizazio programa baten inguruan gizarteko eta nazioarteko indarrak optimizatzea eta zabaltzea. Hau esperientzian eta Bake Konferentzian zehar sortutako barne eta kanpoko parte-hartze sareetan oinarrituta egin daiteke.

3.4. Konpromiso garbi eta bateratzailea definitu oinarri gisa

Bake-prozesu erabakitzaile batek bat etortze zabala behar du oinarritzko konpromiso partekatu baten inguruan. Arrazoi honengatik, prozesuaren amaiera fasean Elkarrik Bake Konferentziaren lan guztia eta bi zirriborroen edukia paragrafo batean adierazi ahal izango litzatekeen konpromiso batean laburbiltzeko xedea iragarri zuen. Konpromiso zehatz bat bakearen alde, indar politikoen akordio zabala lortzeko balio eta gizartearen babesa jaso ahal izango zuena. Egungo egoerari aurre egiteko alternatibaren oinarria izan behar duen konpromisoa da. Bake Konferentziaren lan guztia laburbiltzen eta gizarteari, alderdiei, moderatzaileei eta nazioarteko adituei kontsulta eginez idatzi den paragrafo hori dokumentu honen bigarren zatiko 2.1. puntuan aurkeztuko da.



Alternatiba:

Bake-bidea proposamena

1. Alternatiba bake-prozesu erabakitzaille bat da

Bake Konferentziaren ondorioetatik zera ateratzen da: blokeo-egoera honen aurrean alternatiba proiektu orokor batean oinarrituta fase berri bat zabaltzeko beharra. Bake Konferentzian eta gizarte mugimendu honen hamar urtetako historian zehar ikasitakoa kontuan hartuta, dokumentu honen bigarren zatian alternatiba hau aurkeztuko dugu, Bake-bidea proposamena hain zuzen. Motibazio handi batek bultzatzen gaitu: bakea, sufrimenduaren amaiera eta biktima guztiekiko elkartasun aktiboa. Proposamen hau, gainera, bi uste sendotan oinarrituta egiten dugu: bat, gure indarkeria eta bizikidetasun arazoek konponbidea daukate; eta bi, negoziazio erabakitzaille eta bake-prozesu fase bati ekiteko badaude nahikoa heldutasun-faktore. Heldutasun-faktore hauen artean lau nabarmendu ditzakegu.

- Lehenik, indarkeriarik ezan eta elkarrizketan oinarritutako bake-prozesu ereduarekin kontrajarritako edozein aukerak ikuspegi okerragoak eskaintzen ditu gizartearentzat eta aktore politiko desberdinen interesentzat. Indar-eredu nagusiak agortzen ari dira.
- Bigarrenik, egungo giroa gerrazalea bada ere, nazioartean konponbide negoziatu ereduaren aldeko sentikortasun gaitua dago.
- Hirugarrenik, eztabaida politikoaren heldutasun nabarmena ematen ari da proposamenak aurkeztuz. Proposamenei Bake Konferentziaz sortu diren zirriborroak eta oinarri metodologikoak gehitu behar zaizkie.
- Azkenik, gizartearen gehiengoaren borondateak konponbide eredu demokratiko honekin bat datoz erabat, eta eredu hau babesteko eta defendatzeko masa kritiko antolatu eta mobilizatu nahikoa dago.

Ondoren aurkeztuko dugun Bake-bidea proposamenaren helburua konponbide sendo eta iraunkorretarako bake-prozesu bat martxan jartzea da. Proposamen gisa aurkeztzen da, iritziz desberdinei irekia eta, horrenbestez, ez da behin betikoa izango eragile politiko guztiei aurkeztu eta euren ekarpenak jaso arte. Bere eduki guztiek Bake Konferentziaren lanetan eta gizarteari, indar politiko-erdi, moderatzaileei eta nazioarteko adituei egindako kontsultetan dute sorburua. Ikasturte politiko honetan, Elkarriren xedea proposamen hau kudeatzea da, adostasun eraginkorrak lortu nahiean.

2. Bake-bidea proposamenaren edukiak

2.1. Oinarrizko konpromisoa

Bake-prozesu erabakitzailerik batek bere prozedura eta printzipioen inguruko –eta indar politikoek konpartituko duten– konpromiso batean oinarritu behar du. Proposamen gisa Bake Konferentziaren lanetatik sortutako oinarrizko konpromiso hau ekarri dugu:

«Testu hau izenpetzen dugun talde politikoek bake-prozesu erabakitzailerik bat bultzatzeko konpromisoa hartuko dugu giza eskubideen errespetuan, aniztasunean eta printzipio demokratikoetan oinarrituta. Gure erantzukizunaren eremuan elkarrizketa alde-nitzari ekitea esan nahi du alderdien foro bat eratzeke. Foro honetako erabakiak alde-bakartasunik ezaren irizpidepean eta betorik gabe hartuko direla onartuz, indarkeriarik zein mehatxurik gabe, eta, azkenik, erabakitzeko ahalmen demokratikoa gure gizartearengan utziaz».

2.2. Markoa eta printzipioak

Bake-prozesu erabakitzailerikaren markoa gizartearen gehiengoaren borondateen errespetuan eta hauek finkatzen dituzten printzipioen onarpenean kokatzen da: indarkeriarik eza, elkarrizketa, akordio zabala eta gizartearen berrespena.

2.3. Elkarrizketa-metodologia

Bake-prozesu proposamen honek indar politikoaren arteko bi elkarrizketa-metodologia bateratzea planteatzen du, gizartearen parte-hartzeari irekiak:

- Elkarrizketa zirkularra. Indar politikoaren artean komunikazio metodo malguak eta zirkularrak finkatu, alderdien Foro fase bati ekiteko, oinarri metodologikoak adosteko helburuarekin.
- Elkarrizketa zuzena. Alderdien Foro bat martxan jarri lanerako mahai bakar edo batzuekin, errealitate desberdinetako eta alde zuzeneko elkarrizketa faseetako emaitzen arabera.

2.4. Euskarriak

Proposatzen ari garen bake-prozesu erabakitzailerikaren ereduak gaur egun dituen euskarriak bi dira:

- Prozesu guztian zehar mobilizatzeko eta parte hartzeko herritarrek hartu duten konpromiso egiaztatua eta gizarte eragilearen inplikazio eraginkorra.
- Konponbide-eredu honek nazioartean duen babesa eta, hain zuzen ere, nazioarteko adituak eta erakundeak prest agertzea behatzaile gisa parte hartzeko edota gauzak errazteko.



3. Prozesu erabakitzailea sustatzeko ekarpenak

3.1. Legebiltzar-talde politikoak

Legebiltzar-talde politikoei bake-prozesu erabakitzailea bultzatzea proposatzen diegu:

- Bake-prozesu erabakitzaile baterako oinarrizko konpromisoa onartuz.
- Proposamenak aurkeztuz eta bake-prozesu erabakitzailearen oinarriak adosteko elkarrizketa aldeanitzak hasteko prest agertuz.

3.2. Erakundeak

Erakundeei (Udalei, Legebiltzarrei eta Gobernuari) bake-prozesu erabakitzailea bultzatzea planteatzen diegu:

- Bake-prozesu baterako oinarrizko konpromisoa babesteko adierazpenak onartuz, eta elkarrizketa erabakitzaile bat bultzatzeko eta errazteko ekimenak martxan jarritz eta bultzatuz.
- Gure gizartearen eta honen adierazpen politiko guztien askatasuna, segurtasuna, berdintasuna eta aniztasuna bermatuko dituzten neurriak hartuz.

3.3. ETA

ETARI IRAK Irlandako bake-prozesuan eskaini zuen pareko su-eten bat eskatzen diogu, hemen ere bake-prozesu erabakitzailea ahalbidetzeko.

3.4. Elkarriren konpromisoa

Bake-prozesu erabakitzailea laguntzeko asmoz, Elkarrik ondorengo konpromisoa hartu du:

- Mobilizaziorako, gizartearen parte-hartzea bultzatzeko eta oinarrizko konpromisoa eta bake-prozesu erabakitzailea babesteko egitarau bat bultzatu, beste gizarte mugimendu eta eragileekin adosteko irekia.
- Europako erakundeetan eta Europako Konstituziorako Konbentzioaren eztabaiden esparruan bake-prozesu erabakitzailea bultzatzeko proposamen bat aurkeztu. Bitartekaritzan esperientzia duten Gobernu eta erakundeekin laguntza eskatu.
- Nazioarteko prestakuntza handiko hamar pertsonalitate aurkeztu, prozesuaren behatzaile gisa jokatzeko prest daudenak, eta agian, paper erraztaileak onartzeko.
- Bake-prozesuaren fase desberdinetarako elkarrizketa-metodologietan sakondu eta proposamen hau kudeatu, ahalik eta adostasun sozial eta politiko zabalenak bilatuz.

Indar politikoen arteko adostasun-prozesu baten balizko garapenerako oinarri irekiak

Sarrera

Dokumentu honen helburua da alderdi politikoez konpromisoa hartuta prozesuaren oinarriak ezartzea, hau martxan jartzeko une egokia dela iruditzen zaienerako. Prozesu hau indar politiko guztien topaleku eta lana partekatzeke foro gisa ulertu behar da aurretik adostutako epe mugatu batean. Askatasunean, berdintasunean eta aniztasun politikoan oinarritutako bizikidetasuna bultzatzea da bere helburua.

A. Printzipioak

Oinarrizko esparru honek, gutxienez, ondorengo printzipioetan oinarritu behar du:

- Pertsonen duintasunari eta giza eskubide guztiei eta honetatik eratorzen diren oinarrizko askatasunei errespetua bai banakoei eta bai taldeei dagokienean.
- Aniztasun politiko, soziala eta ideologikoa, eta gure ordezkariak esparruko nazio-identitate sentimenduen aniztasuna onartu eta bermatu.
- Konfrontazio politikorako eta aldiberekotasun publikorako baldintza demokratikoen berdintasuna.

B. Prozesuaren konpromisoak

Prozesu honen garapen eraginkorra ondorengo konpromisoetan oinarritzen da, bere garaian, definizio zehatzagoa beharko dutelarik:

- Inolako indarkeria modurik eza, bortxa nahiz mehatxu.
- Onartzea, adostasun-prozesu honetan har litezkeen erabaki guztiak ez direla aldebakarrekoak.
- Onartzea gaur egungo esparru juridiko-politiko ez dela aldaezina.
- Onartzea adostasun-prozesu honen emaitza gizarteak demokratikoki legitimatua izan beharko duela.

C. Prozedura-bermeak

Adostasun-prozesu honen balizko garapena hurrengo prozedura-bermen arabera antolatuko da:

1. Nortasun eta tradizio nazional eta politiko desberdinen errespetua bermatzeko, adostasun-prozesuak horrek behar dituen kontsentsuak definitu behar ditu aurrez eta adostasunez.
2. Prozesu honek ez du aurrez zehaztuta helmuga. Bide emango du egungo eredu autonomikoa berresteko, beste interpretazio baterako nahiz esparru aldaketarako.
3. Emaitzen legitimazioa alde aurretik adostutako prozeduren bidez eta gizartearen borondatea errespetatuz egingo da.
4. Prozesu honetan parte hartu duten alderdi politikoez emaitzak erabakiguneetara eramateko tramiteak hasiko dituzte hauek betearazteko. Emaitza horien inplementatzea, dagokien erakundeekin negoziatu eta itun bidez onartu behar da.
5. Prozesu honek soilik bide eta metodo demokratikoak onartzen ditu. Indar politikoez prozesuaren emaitzak onartuko dituzte eta, emaitza hori aldatzeko, adostutako arau eta berme berberak errespetatuko dituzte. Hau onartzeak, inposaketari uko egitea eta indarkeriaren zein mehatxuaren erabileraren aurka agertzea dakar.

Interpretazio-esparrua: Bat datozen borondate politikoak

Bi oztopo nagusi ditu gaur egun indar politiko guztien partaidetza bereganatu nahi duen adostasun-prozesuak. Batetik, erabat kontrajarriak dira indarkeriaren inguruko –horren zergatiak, erantzukizunak edo alternatibak– analisiak. Bestetik, desadostasun nabarmenak daude honako gai hauetaz: egungo esparru juridiko-politikoaren balorazioaz, bere historiaz, legitimotasunaz edo ahalmenetaz, eta zehazki subjektu politikoaz edo politikoetaz.

Baina, nolanahi dela ere, ezin dugu etsi. Eta bada horretarako –ez etsitzeko– hainbat arrazoi: bakea lortzea, indarkeriarik gabe bizitzea elkarrekin, ahalik eta osotasun demokratiko handieneko eremua eskuratzea. Beraz, batzen gaituena –edo batu gaitzakeena– zehaztea ere erantzukizun politikoz jardutea da, eta politikari zein gizarteari baliagarri zaiolakoan ekiten diogu eginkizun horri. Denok hainbat egitasmoren inguruan bat gatzela hitzez adierazteak ez ditu sakabanaketak ezabatuko, baina horretarako bidea jorratzen lagundu egingo du. «Indar politikoen arteko adostasun-prozesu baten balizko garapenerako oinarri irekiak» deritzenen inguruko adostasuna bat gatozen honako adierazpen politikoen ikuspegitik interpretatu behar da:

- Gure gizarteak konpontzeke dituen arazoak eta gatazkak soilik jarduera demokratikoen bidez gainditzeko asmoa dugu. Halaber, gure arteko desberdintasunak bake-bidez konpontzeko hainbat prozedura eta printzipio onartzeko eta aintzat hartzeko borondate sendoa dugu.
- Jokaerak humanizatzeko konpromisoa dugu, baita gizarteak biktima guztiak aintzat hartu, haien ahotsa entzun eta jasan duten sufrikarioa leuntzeko ere.
- Gure gizarteak den bezalakoa izaki egokitu behar duela uste dugu: naziotasun-sentimendu, hizkuntza, estatu-eredu, proiektu politiko, diagnostiko eta mito desberdinak bere baitan dituela, alegia; inongo proiektu politiko debekatu edo zokoratu gabe, eta gogoan izanik ez egia ez arrazoa ez daudela inoren teilatupean oso-osorik edo bakarrik. Askotariko gizartean elkarrekin bizitzeko ez dute oztopo izan behar gure honako edo harako nortasun-sentimenduek.
- Gizartearekiko gardentasunez aritzeak honakoa eskatzen du, gure ustez: gure herriaren etorkizunerako bakoitzak daukan proiektu politikoa argiro azaltzea. Esan dezagun etorkizun hori ez dagoela aurrez inon idatzita; gure gizarte osoari dagokio geroa eraikitzea adostasun sozialek baimentzen duten mailaketarekin.
- Hitzezko desarmearen borondatearen aldekoak gara. Indar politikoen arteko elkarrizketa iraunkorra, guztientzat baldintza berberak dituen eta horretan parte hartu nahi duten erakunde politiko guztiei zabaldua bultzatzen dugu.
- Gaur egungo esparru juridikoen azterketa kritikoa, askea eta zintzoa egin behar dela deritzogu, azken urteotako historia, etorkizunerako ditugun asmoak eta gure inguruneke herrien esperientzia aintzat hartuta, aukera politiko guztien artean elkargune eta orekagarri gisara baliagarri zaizkigun aztertzearen.
- Honako akordioa lortu nahi dugu: soilik bide demokratikoak erabiliz gehiengo baten onespena jasotzen duen edozein proiektu politiko gauza daitekeela. Gizarte oso-osoari jakinarazi behar zaio zein diren horretarako bideak, jada zabalik nahiz zabaltzearen daudenak.
- Jokalaria batek irabazteko besteak derrigorrean galdu beharra daukan jokorik ez dugu nahi: gizarte osoa irabazle suertatuko den prozesua nahi dugu, guztiek horretan abantailarik sumatzen dutelako eta sentikortasun politiko desberdinak integratuak sentitzen direlako.

Gizarteari eskainitako informazioarekin erlazionatutako datuak

- 55.000 kartel.
- 100.000 Parte-hartze Koaderno.
- 360.000 Eraikikasi aldizkari.
- 350.000 esku-orri.
- Tira plastikoa: 9.000 metro.
- 1.000.000 informazio-foileto banatu dira etxe etxe hiru aldiz.
- Mundu guztiko 8.000 helbide elektronikotara aldizkako informazio-boletinen bidalketa.
- 2.000 elkarteei informazioa eta 400 talderekin harreman zuzena.
- Bi lan-mintegi 30 gizarte mugimendurekin.
- Bilera bat EAEko sindikatu guztiekin.
- 10.000tik gora lagunek parte hartu duten 225 hitzaldi.
- Alderdi politikoetako ordezkarietan 18 solasaldi publiko herrietan. 2.500 lagunek hartu dute parte.
- 60.000 bisita web orrialdeari, 2001eko irailaz geroztik.
- Bake Konferentziaren Liburuaren argitalpena.
- Gizarte parte-hartzearen Dosierraren argitalpena.
- Berdintasun printzipioaren inguruko irizpena.
- Bake Konferentziaren Karpeta argitalpena.

Bake Konferentzian gizarteari parte-hartzearekin erlazionatutako datuak

- 01-02-11. Aurkezpen ekitaldia. 800 lagun Bilboko Euskalduna Jauregian.
- 01-10-07. Prozesuaren hasiera. 2.500 lagun Bilboko Euskalduna Jauregian.
- 01-11-19. Ramón Zallo eta Gurutz Jauregiarekin mahai-ingurua. 700tik gora lagun Donostiako Kursalean.
- 01-12-10. X. Rubert de Ventós eta J. M^a Mendilucerekin mahai-ingurua. 300 lagun Gasteizko Canciller Ayala Hotelean.
- 01-12-11. Madrilgo Laguntza Batzordea. 200 lagun Kongresu Jauregian.
- 02-01-16. Ardura politikoa duten 5 emakumerekin solasaldia. 800 lagun Euskalduna Jauregian.
- 02-01-24. Nazioarteko adituak. 250 lagun Donostiako Kursalean.
- 02-02-05. Albert Reynolds-en hitzaldia. 200 lagun Bilboko Carlton Hotelean.
- 02-02-27. Alderdi politikoetako Gaztedietako ordezkarietan mahai-ingurua. 100 lagun Sarrikon.
- 02-03-05. Quebeceko adituekin mahai-ingurua. 250 lagun Bilboko Ercilla Hotelean.
- 02-03-12. Félix Martí eta Vicent Martínez. 250 lagun Iruñeko Maisonnave Hotelean.
- 02-03-21. José Saramagoren hitzaldia. 700 lagun Gasteizko Europa Jauregian.
- 02-03-26. Indarkeriaren biktimen testigantzen hitzaldia. 250 lagun Iruñeko Tres Reyes Hotelean.
- 02-06-22. Behin-behineko ondorioen aurkezpena. 1.600 lagun Donostiako Kursalean eta 300 Iruñeko Tres Reyes Hotelean.
- 5.000tik gora erantzun proposamen, ekarpen edo eskaerekin.

Bake Konferentziari eskainitako babes herritarrarekin erlazionatutako datuak

- 4.500 kolaboratzaile.
- Herritarren 55.000 atxikimendu.
- EAEko eta Nafarroako 100 pertsona ezagunen atxikimendua.
- Bake Konferentziaren Europako Laguntza Batzordea: Parlamentuko talde nagusietako 14 europarlamentari eta beste 4 pertsona ezagun.
- Bake Konferentziaren Kataluniako Laguntza Batzordea: sentikortasun guztietako 36 pertsona ezagun.
- Bake Konferentziaren Madrilgo Laguntza Batzordea: aniztasun zabaleko 19 pertsona ezagun.
- Ohorezko Laguntza Batzordea: nazioarteko 3 pertsonalitate eta 7 Nobel Sari.
- Bake Konferentziaren Laguntza Batzordea: 17 epaile euskaldun, katalan, madrildar, galiziar eta andaluziar.
- Hiri-ibilaldia Donostian. 02-03-10. 4.000 lagunek hartu zuten parte.
- Hiri-ibilaldia Gasteizen. 02-04-20. 3.000 lagunek hartu zuten parte.
- Hiri-ibilaldia Iruñan. 02-05-04. 3.000 lagunek hartu zuten parte.
- Manifestazio nazionala Bilbon. 02-05-18. 15.000 lagunek hartu zuten parte.

3. Eranskina

Bake Konferentziaren inguruko dokumentuen zerrenda

- Bake Konferentziaren Karpeta.
- Gizartearen parte-hartzea: Dosierra.
- Bake Konferentziaren liburua «Claves para hacer las paces».
- Berdintasun printzipioaren inguruko irizpena.
- Bake Konferentziaren prozesua AEBetan aurkezteko dokumentua.
- Eraikikasiak:
 6. Eraikikasia. Zerk alda ditzake gauzak. 2000ko urria.
 7. Eraikikasia. Bake Konferentzia bultzatuko dugu. Gauzak aldatzen hasteko aukera. 2001eko otsaila.
 8. Eraikikasia. Bake Konferentzia. Berdintasun printzipioa partekatzeko prozesua. 2001eko urria.
 9. Eraikikasia. Bake Konferentzia. Berdintasunerako akordio aldeanitz baten alde. 2002ko otsaila.
 10. Eraikikasia. Bake Konferentziaren informazio-aldizkaria. Egungo egoeraren aurrean bada alternatibarik. 2002ko iraila.

Dokumentu hauek 902 421010 telefonora deituz edo Elkarriko ohiko helbidetan eskura daitezke.